

IRAGARKIA

92. ALDIZKARIA - 2022ko maiatzaren 12a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA

ETXALAR

2022rako lan publikoaren eskaintza

Honen bidez aditzera ematen da ezen, Alkatetzaren apirilaren 29ko 19/2022 Ebazpenaren bidez, onetsi zela Etxalarko Udalaren 2022rako lan-eskaintza publikoa, honela:

1. Etxalarko Udalaren lan publikoaren eskaintza hau onestea 2022rako, honako lanpostu hauek betetzea barne hartuta, eta kontuan hartuta abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoak, xedatutakoa:

–Lanpostua: zerbitzu anitzetako. D maila. Araubide-juridikoa: funtzionarioa. Lanpostua betetzeko sistema: oposizio-lehiaketa. Euskara maila: B2 ahozkoa, B1 idatzizkoa. Betetzeko aurreikuspena: 2022-2023.

–Lanpostua: garbitzailea. D maila. Araubide-juridikoa: lan-kontratuduna. Lanpostua betetzeko sistema: oposizio-lehiaketa. Euskara maila: B2 ahozkoa, B1 idatzizkoa. Betetzeko aurreikuspena: 2022-2023.

–Lanpostua: administrari-ofiziala. C maila. Araubide-juridikoa: lan-kontratuduna. Lanpostua betetzeko sistema: merezimenduen lehiaketa (20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarria). Hizkuntz-profila (euskara): C1 (ahoz eta idatziz). Betetzeko aurreikuspena: 2022-2023.

2. Etxalarko Udalaren lan publikoaren eskaintza argitaratzea iragarki ohoan, web gunean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean, denek jakin dezaten eta interesdunek egokitzat jotzen dituzten errekursoak jar ditzaten, kasua bada.

3. Ebazpen hau jakinaraztea Etxalarko Udaleko aldi baterako langileei, lan publikoaren eskaintzak ukitzen dituen lanpostuak betetzen dituztenei.

4. Ebazpen honen berri ematea Etxalarko Udalbatzaren hurrengo bileran.

Ebazpen honen aurka, hautara, errekurtsu hauetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Etxalarren, 2022ko apirilaren 29an.–Alkatea, Miguel María Irigoien Sanzberro.

Iragarkiaren kodea: L2206538